

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea uraren, zaborraren eta estolderiaren 2026eko lehen hiru hilabeterako erroldak

Behin Okondoko udalerriko ur horniketa, estolderia eta zabor bilketaren tasen 2026ko lehenengo hiru hilabeterako erroldak eginda, onetsi egin dira alkatearen 2026ko apirilaren 12ko dekretu bidez.

Errolda jendaurrean egongo da 15 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea 1) aztertu ahal izango dute, 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2026ko maiatzaren 1etik ekainaren 1era.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaitzen denean, betearazte aldia hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala dagokionean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar, 2026ko maiatzaren 5ean egingo baita zordunketa.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan emango zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Caja Rural de Navarra entitatean sar dezaten.

Okondo, 2026ko apirilaren 13a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO